

BARNE MUGIKORTASUNERAKO PROZEDURA ARAUTZEKO JARRAIBIDEAK,
IKASTETXE BATEAN EDO NAFARROAKO ESQUALDE BATEAN ARI DIREN HEZKUNTZA
DEPARTAMENTUAREN ZERBITZUKO HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA
FUNTZIONARIOEI DAGOZKIENAK

Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 3ko 1447/2018 Ebazpenean ezarritakoaren bat, ikastetxe batean edo Nafarroako eskualde batean ari diren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko hezkuntza-laguntzako espezialisten urteko mugikortasun prozedura egin beharra dago 2022-2023 ikasturterako.

PARTE-HARTZAILEAK

Honako hauek parte hartu beharko dute mugitzeko prozedura honetan:

- Hezkuntza-laguntzako espezialistek, baldin eta zerbitzuak ematen dituzten ikastetxean beharra osoki edo zati batean desagertu bada.
- Hezkuntza-laguntzako espezialistek, baldin eta, destinoa eskualdean izanik, beren borondatez parte hartzea eskatu badute ikastetxez aldatzeko eskualde horretan. Borondatez mugitzeko eskatu ondoren, funtzionarioak betetzen duen lanpostua urteko mugikortasunean eskainiko da soil-soilik lanpostuaren titularrak destino berri bat lortzen badu.

PROZEDURA

Urteko mugikortasunean, destinoa aukeratzeko unean, eskualde bakoitzaren barnean lehenetsuna izanen dute beharra desagertzeagatik edo ordutegi nahikoa ez izateagatik tokiz mugitu behar duten hezkuntza-laguntzako espezialistek, beren borondatez aldatzea eskatu dutenen aurretik.

Lehenik eta behin, Iruña, Tuter, Lizarra, Tafalla, Irurtzun, Elizondo eta Irunberriko eskualdeetan destinoa duten funtzionarioei dagozkien destinoak esleituko dira eta, azkenik, Nafarroako eskualdean destinoa duten funtzionarioenak.

Iruña, Tuter, Lizarra, Tafalla, Irurtzun, Elizondo edo Irunberriko eskualdeetan destinoa izan eta, atxikirik dauden eskualdean behar nahikoa ez izateagatik, destinoa ezin aukera dezaketen hezkuntza-laguntzako espezialistak Nafarroako eskualdeko langileen zerrendan sartuko dira, dagokien hurrenkeran.

Nafarroako eskualdean destinoa duten langileek dagokien hurrenkeran aukeratzeko ahalko dituzte gainerako eskualdeetatik mugituko hezkuntza-laguntzako espezialistek aukeratu ondoren gelditzen diren lanpostuak.

Destinoa eskualdean duten hezkuntza-laguntzako espezialistek, aurre-aurreko ikasturtean zerbitzuan aritu diren ikastetxetik mugitu behar badute beharra desagertu delako edo behar adinako ordurik ez dagoelako, beren lanpostuaren hizkuntza eskakizun bera ez duten

lanpostuak hautatzen ahalko dituzte, borondatez eskatzen duten hizkuntza eskakizuneko eremu guztietako hezkuntza-laguntzako espezialistek aukeratu ondoren. Ondorio horietarako, euskarazko lanpostuak aukeratzeko, V1 hizkuntza eskakizuna bete beharko da.

Lanaldi partzialeko lanpostuak aukeratzeko ahalko dira, beheko taulan adierazten diren orduekin bat datozenak. Horrela, funtzionarioen batek haietako bat hautatuz gero, konpromisoa hartuko du lanaldia dagokion heinean laburtzeko eskatzeko

	Lan ordutegia. Jardunaldia						
Murrizketa	2/3	1/2	2/5	1/3	1/4	1/6	1/8
Lanpostuaren lanaldia (orduak)	12	18	22	24	27	31	32

Lanpostuak aukeratzeko ekitaldira joaterik ez duenak beste norbaiti eman beharko dio baimena bere ordeztu dadin. Horretarako, webgunean argitaratuko den dokumentazioa bete beharko du.

Baten bat ez bada lanpostuak aukeratzeko ekitaldira agertzen, Aldi Baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzua haren eskualdean edo, bertan lanposturik ez badago, beste eskualde batzuetan hutsik gelditzen diren lanpostuetako bat esleitu dio ofizioz.

FASEAK

- Hezkuntza-laguntzako espezialista funtzionario guztien eskualdekako behin-behineko zerrenda argitaratzea, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 3ko 1447/2018 Ebazpenean ezarritako ordenari jarraikiz sortutako hurrenkera agertzen duena.
- Parte hartu beharra duten pertsonen zerrenda.
- Eskaintako lanpostuak
- Lanpostuak aukeratzeko ekitaldia, 2022-2023 ikasturterako destinoa hautatzeko.
- Funtzionarioen mugikortasunari buruzko emaitza argitaratzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 10a.

ALDI BATERAKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Isidra Roldán Arróniz